

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Garai



Aurkibidea

Udalerria: Garai

Sarrera



Garaiko herria Oiz mendiaren magaletan aurkitzen da, Durangaldea eskualdean. Ipar eta ekialdean Berriz, mendebaldean lurreta eta hegoaldean Abadiño mugakide ditu. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia.

- **Biztanleak:** 318
- **Euskaldunak:** %80,82

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **30**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **30**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Felix Aresti Zamalloa *Arrotxe* (1929)



1929. urtean jaio zen Arrotxe baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Epaltzakoa. Hiru neba-arrebatatik gazteena izan zen eta betidanik baserrian lan egin izan zuen. 14 urtera arte joan zen eskolara eta handik aurrera, frutak landatu eta bertakoei saltzen jardun zuen. Danetariko fruta eta fruta-arbolak izan zituen: sagarrondoak, kiwiak, madariondoak... Oso pertsona fededuna zen eta elizaren inguruko kontu asko kontatu zizkigun.

Jesus Igartua

Mari Jaka Bilbao (1921-2014)



San Migel auzoko Garate baserrian jaio zen 1921.urtean. Aita Eubakoa zuen eta ama Garaiko Arnaie baserrikoa. Sei neba-arrebatatik laugarrena izan zen eta baserritik bizi zirenez, etxean asko laguntzen zutela aipatu zigun. Aitak zerran egiten zuen lan eta amak bitartean, behiak jagon, lurrak landu... eta etxeko guztiak zaintzen zituen. 11 urterekin Durangoko ume bat jagoten ibili zen urte osoan zehar eta 12 urtera arte joan zen Garaiko eskolara. Oso pertsona fededuna izan da betidanik eta ume-umetatik, bere ametsa misiolari izatea eta gehien behar dutenei laguntzea izan zen. Horregaitik, adinez nagusia izan zenean, misioilari izateko urtebete egon zen Zornotzako Larrea auzoko karmeldarren komentuan ikasten. Bere ametsa bertan behera utzi behar izan zuen osasun arazoak zirela medio eta orduan, Garaiko momentuko abadea zen Aita Luziok, etxea zaindu eta berari laguntzearen truk berarekin abade-etxean bizitzea eskaini zion. Hortik aurrera, betidanik bizi izan da herriko abade-etxean.

Matias Larrinaga Lejarraga (1930)



Santa Katalina auzoko Barriña baserrian jaio zen, bera aitaren jaiotetxean. Zazpi neba-arrebatan zaharrena izan zen eta 15 urte zituenerako basoko beharretan hasi zen. Bizimodua baserritik eta basotik atera zuen, batik bat azken urteetan esne-saltzaile bezala Durangon. Bere ume eta gazte denborako herriko kontuen berri eman zigun elkarriketan.

Martzial Mazaga Larrea (1917-1998)

Aiartza Barrera baserrian jaioa; Aiartza Erdikoan bizi.

Maria Teresa Mazaga Uriarte (1947)

Gabriel Milikua Zabaleta

Momoitio Ganekoa baserrian bizi izan da. Gerra garaian soldadu egon zen Nafarroako mendialdean. Basomutila, artzaina, baserritarra eta artisaua izan da, eta artilearekin haria egiten du. Maritxu Atutxarekin ezkondu eta lau-seme alaba izan ditu. Familia baserritik bizi izan da.

Maku Negugogor Berasaluze (1945)



Garaiko Plazako Potoko baserrian jaio, hazi eta bizi izan da beti. Aita zuen bertakoa, artzaina eta tratantea zena, ama ondoko etxekoa zuen. Zazpi neba-arreba izan ziren eta umetatik aritu behar izan zen baserriko beharretan. Herriko eskolako kontuak, baserriko bizimodua, usadio zaharrak, umetako bihurrikeriak, bere amak egiten zituen enplasto eta botikak, ume kantak... izan genituen berbargai.

Justina Urizar Legorburu (1917-2016)



San Migel auzoko Olan jaion zen, burdin-ola eta errota izandakoan. Bere jaiotetxea Udalez Berriz da, baina elizaz Garai; bizimodua ere bertan egin dute. Aita Berrizko artzaina zuen eta ama Garaikoa bertakoa. Zazpi neba-arreba izan ziren eta gazterik hasi zen lanean, plazara gazta eta ortuariak saltzen zein bederatzi urtegaz neskame Matienan (Abadiño). Gerra garaian, Negurin (Getxo) egon zen sukaldari laguntzaile bezala eta handik bueltatzerakoan ezkondu zen. Senarra ere Garaiko zuen, senitartekoa gainera. Artzain bizimodua, gaztagintza, errotako funtzionamendua, gerrako bizipenak, umetako jolasak... izan zituen berbagai elkarrizketan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Gaez etxeko lanak egiten

- **Hizlaria(k)**: Urizar Legorburu, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref**: GAI-002/003
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:04:16. **Bukatu**: 00:05:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Mutilek orduan ez zuten etxeko lanik egiten. Gaez umerik txikiena senarraren ondoan utzi eta sukaldara itzultzen zen etxeko lanak egitera: jostera, arropak garbitzera...

Transkripzioa

- Ta danak mutilek aurretik.
- Bai.
- Orduen, bihar asko etxien nok ein eban?
- Enee! Bihar asko... Orduen mutilek ez abien etxien ezer... baiñe oin ein eitten dabie, baiñe orduen ba... Ta bihera nun ez? Bihera, dana bihera! Nik sekula biherrien, esaten naben, ni ez naz kantsetan biherrien. Osea ke ezkondu ta gero, e! Ba, ein ein biher. Ta... baiña gorputze [kantsetan jata]

ta jun ein biher ohera. Gorputze kantsau ba. Baiña zenbat ba? Kanpuen [biher izeten zan] ta! Gero hainbesteko famelixe ta harek danak biherrak eitteko, ba, gabez ein biher. Ta gixonaz eruten naben txikixena, txikixe baneuken, kumatxuen ipini, [...] tititxe edo emonda ipini ta gero, ba, ohien ondo, gixonaz ipintten naben ta neu atzera ezkatzera. [Ta edo] josten, edo galtzak eitten edo plantxan edo... Erropak... ure etxien egon bazan, erropak garbitzen be gabez. Baiña ez geunken etxien ta. Urrin! Zelako bidiek eta? Zelan? Ura nun? Eneeee! Gure biximodue? Bueno! Kurtze santue! Baiña orduen holan eitten zan ta, ba, ez zan besteik pentsetan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita artzaia (GAI-002/004)

Nebek kanpoan lan egiten zuten, etxean sail handirik ez zuten eta. Aitak ardiak zituen eta egunero Oizko puntaraino joaten zen 60-70 ardirekin. Soroko barazkiak ematen zizkieten ardiei: arbiak, "berdeak"...

2. Durangoko azokara saltzera (GAI-002/005)

Landak ardiekin erabiltzearren errenta ordaintzen zuten. Soroko ze barazki ematen zieten kontatzen du. Bildotsak eta gaztaiak saltzen zituzten amak eta biek. Barazki eta frutak ere eramaten zituzten plazara. Durangoko azokan saltzen zuten. Zapatukoa ikusgarria izaten zen. Bere ama elizpera joaten zen bera ume zela.

3. Kurutziagako dendan astoa lagata (GAI-002/006)

Kurutziagan ateratako argazkia hartu dute hizpide. Denda batean gordetzen zieten astoa, eta orturako haren pekotzak eta txixa aprobetxatzen zituzten. Astoak kargarik ez bazuen, gainean joaten zen. Bere koinataren bitartez lortu zuen argazkia. Aterkia erabiltzen zuen eguzkitik babesteko.

4. Plazarako bidea eta postua (GAI-002/007)

Asto-otzaretan denetarik eramaten zuten. Zaku bat jarri eta gainean jartzen zizkieten barazkiak-eta. Astoa lotzen lagatzen zioten dendan egiten zituzten erosketak. Plazan bertan zerga ordaindu behar izaten zuten. Lurrean zaku bat jarritaosatzen zuten postua.

5. Plazako bezeroak (GAI-002/008)

"Regaterekin" tratua egin behar izaten zuen. Kanpora eramaten zuten eta haiek ezarritako prezioan eman behar izaten zien. Bezero finkoak izaten zituzten eta berehala saltzen zuten. Emakume batzuei, maila altu xamarrekoei, gaztaia edo enkarguren batzuk eramaten zizkien etxeraino.

6. Gaztaia egiteko prozesua (GAI-002/010)

Gaztaia egiteko prozesua azaltzen du. Esnea jetzi, iragazi, legarra eman, eskuekin mamia jeitsi eta moztu egiten zen. Gaztaia egiteko ontzia hartu, zuloduna, eta han berriz gaztaia apurtu atzamarrekin eta estutuz ura atera. Buelta eman eta berriz estutu egiten zen. Urik ateratzen ez zuenean, egina zegoen. Ura txerriei ematen zieten.

7. Gaztaiak zela zaindu (GAI-002/011)

Gaztaiak zortzi egun izaterako azala egiten zitzaion. Egun bitik behin garbitu behar izaten ziren eta zapi garbiak jarri. Gaztai freskoa erosten zutenik bazen. Prezioan ez zuen alde handirik izaten. Orain prentsarekin egiten denez gaztaia, ur guztia ateratzen zaio. Eskuz ordea, ez zaio ur guzti-guztia ateratzen.

8. Gaztaiak zela estutu eta lehortzen ziren (GAI-002/012)

Gaztaiak ganbaran edukitzen zituzten. Ekaitza zegoenean, hego-haizea, gaztaiari ura irtetzen zitzaion eta mamia moztu. Gaztaia nola estutzen zuten erakusten du. Gauera arte armairuan gordetzen zuten plater batean. Gaztai handiagoak mami hobea izaten duela dio. Latorrizko moldeak izaten zituzten. Osaba zestagile batek zimitzezkoak egiten zituen eta etxean ezagutu zuen.

9. Gaztaia zela saltzen zen (GAI-002/013)

Gaztaia osorik saltzen zen beti. Pisua eramaten zuten plazara eta haren arabera jartzen zioten prezioa. Pisuko neurriak izendatzen ditu: libra, libra-erdi, libra-laurden, ontza...

10. Juan Eusebioren erleak (GAI-002/014)

Anekdotak bat kontatzen du: Juan Eusebio alkateak ogiak pisatuarazten zizkion okinari, kiloko ogiak ote ziren egiaztatzeko. Juan Eusebio erlezaina zen eta bere erleak ezagutu egiten zutela dio. Non izaten zituen aipatzen du. Eztia saltzen zuen etxean zein plazan.

11. Errota zeukaten etxean (GAI-002/016)

Justinaren etxea burdinola izandakoa zen. Burdina egiteari laga ziotenean, ondoko etxe batetik etxe hartara bizitzera joan ziren Justinaren aita eta senideak. Orduan errota bat jarri zuten bertan, artoa eta garia ehoteko. Argirik ez zuten egiten. Umetan, hamar urte ingururekin ere, astoarekin joaten zen etxeetara irina banatzera etxe batzuetan ez zeukaten astorik eta. Nola moldatzen zen kontatzen du.

12. Garai inguruko errotak (GAI-002/017)

Errotak non zeuden kontatzen du. Beraien etxeko ugazabak errota kendu eta argindarra egiteko saltoa jarri zuen.

13. Errotaren funtzionamendua eta zainketa (GAI-002/018)

Urteetan ibili zen baserrietara arto eta gari irina banatzen, etxejabeak errota kendu arte. Justinaren familia errentaria zen. Etxejabeen kontuak kontatzen ditu. Errotak zela funtzionatzen zuen eta zela zaintzen zen kontatzen du.

14. Irin motak (GAI-002/019)

Gariarentzat eta artoarentzat bereizitako lekua izaten zuten errotan ehoteko. Gariari zaia kendu egiten zion errotako harriak eta irin ona egiten zuen. Tabirako irina ez zen hain ona izaten.

15. Hamar kilotik bat kendu (GAI-002/020)

Hamar kilo irinetik bat kentzen zioten baserritarrari. "Bendie kendu" esaten zioten horri.

16. Errotaren funtzionamendua eta zatien izenak (GAI-002/021)

Errotako zatiak izendatzen ditu eta prozesua azaltzen du. Lexikoa.

17. Neurri desberdinetako zorroak (GAI-002/022)

Zorroak neurri desberdinetakoak izaten ziren. Handiek hogeita hamar kilo inguru izaten zituzten. Gertu bizi zirenek, zorro txikiagoak ekartzen zituzten bizkarrean hartuta.

18. Bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko pikea (GAI-012/001)

Bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko pikeak eta bakoitzaren izaera. Nafarrak odol berokoak direla dio.

19. Nafarroan makien garaian (GAI-012/002)

Nafarroako mendialdean soldadu egon zen, makien garaian. Estraperloan ibiltzen ziren batzuk. Goseagatik, gaztak lapurtzen aritzen ziren.

20. Artilearekin haria zelan egiten den (GAI-012/004)

Artilea garbitu egiten du barrika batean, eta lehortu. Kardatu eta haria egiten du.

21. Artile beltzarekin abarka lokarriak (GAI-012/006)

Artile beltzarekin abarka lokarriak egiten dituzte. Garbitu, lehortu eta kardatu egiten dute artilea, haria egiteko.

22. Ingalaterrara haria egiten erakustera (GAI-012/007)

Ingalaterran bost egunez hangoei artilearekin haria egiten erakutsi zien. Lanbide zaharretan trebatutako beste hainbatekin joan zen.

23. Haria egiteko makinarekin lanean (GAI-012/010)

Haria egiteko makinarekin lanean ari da. Jertseak eta galtzerdiak egiten dituzte etxean, saltzeko. Gorua eta txabila zer diren azaltzen du. Hariari bihurra kentzeko pare bat buelta ematen zaizkio.

24. Legarra zer den (GAI-012/011)

Ardiak Oiz mendira eramaten ditu udan. Esnea saldu egiten dute eta gazta ere bai. Gatzatua zelan egiten den kontatzen du. Legarra zer den eta zelan erabiltzen den azaltzen du.

25. Txerri hiltzen (GAI-012/012)

Txarribodak zelakoak diren azaltzen du. Auzoko baserrietan txerriak hiltzen ibili izan da. Pattar asko edaten zuten gazte garaian.

26. Denboralea datorrenean, ardiei igartzen zaie (GAI-012/014)

Eguraldia iragartzen du. Denboralea datorrenean, ardiak batu egiten dira eta topeka hasten dira. Ilbeherari erreparatzen diote.

27. Neska-laguntzen ibiltzen zeneko komeriak (GAI-012/015)

Neska biri etxera zelan laguntzen zien kontatzen du. Aramaitarako (abe mariatarako) etxera joan behar izaten ziren. Hainbat anekdota kontatzen ditu. Durangoko apaizak erromeria geratu eta denak errezatzen jarri zituenekoa.

28. Neska-laguntzen gertatutakoak (GAI-012/016)

Neska-laguntzen ibiltzen zeneko gertaerak kontatzen ditu.

29. Etxeko otorduak (GAI-012/018)

Lehengo otorduak zelakoak ziren kontatzen du. Babak, urdaia, taloa, bakailaoa...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com